

Baztarrikak «urduritasuna» egotzi dio Kontseiluari ziurtagirien aferaren harira

► «Batzuentzat ezinezkoa dirudi euskararen arloan ezer bikain egitea», argudiatu du

Lan-Hitz programaren barruan eman nahi dituen ziurtagirien bidez, Lakuak berriro ere Kontseilua aspalditik egiten ari den lana «bikoiztu nahi» duela salatu zu-

ten herenegun euskararen aldeko eragileek. Polemikari heldu dio Lakuak: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ukatu egin du hori horrela denik eta

orokorrean «deigarri eta tamalgarritzat» jo du bere ekimenen aurrean Kontseiluak azaldu duen «kritika eta urduritasuna». Elkarlanerako prest direla esan du.

GARA

GASTEIZ

Duela hilabete batzuk Behatokiaren Euskararen Telefonoaren antzeko ekimena abiatu zuen Lakuak: Elebide zerbitzua. Orain, euskararen erabilera ebaluatzeko ziurtagiriak ezarriko dituela iragarri du, antza, Kontseiluko Bai Euskarari ziurtagirien ideari jarraituz. Polemika sortu da, ondorioz, bi erakundeen artean. Kontseiluak kezka agertu zuen astelehenan, eta horri erantzuna eman dio Patxi Baztarrika buru duen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Ziurtatu duenez, bere jarduna «ez doa ez inoren ez ezeren aurka, euskararen alde baizik». Ildo horretatik, Lakuak 1991n «lan munduan euskara sustatzeko esperientzia pilotuak» abian jarri zituela ekarri du gogora, bai eta «enpresa guztientzako euskara planetarako dirulaguntzak banatzen hamar urte» daramatzala ere.

Oraingo ekimenari dagokionez, legealdi hasieran publikoki iragarri zuena baino ez dela betetzen ari esan du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.



Patxi Baztarrika sailburuordea, erdian, Elebide zerbitzuaren aurkezpenean.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Eta honakoa erantsi du: «Ziurtagiri honek ezaugarri propioak ditu eta ez du Bai Euskarari ziurtagiriaren antzik. Ez dago, beraz, Eusko Jaurlaritzaren aldetik inolako bikoizketarik».

Hala ere, auzi honetaz harago bi erakundeen arteko harremanaz hitz egiten du Lakuak prentsa adierazpen horretan. Horre-

la, nabarmendu du «deigarria eta tamalgarria» dela «Jaurlaritzak euskararen aldeko neurri bat hartzen duen bakoitzean batzuek, poztu ordez, kritika eta urduritasuna azaltzea».

«Egiten ez dugunean egiten ez dugulako, eta egiten dugunean egiten dugulako, baina batzuentzat ezinezkoa dirudi he-

rri-erakundeek euskararen arloan ezer bikain egitea», erantzun dio Lakuak Kontseiluari.

Horrekin batera, «elkarlan zintzoa eta jatorra» lortu nahi bada, gaineratu du «mahai baten inguruan» gertatu behar dela, ez hedabideen bitartez». Eta Kontseiluarekin biltzeko prest dela gaineratu du.

Piden 20 meses de cárcel para el joven de Gares por «atentado»

GARA

IRUÑA

Los altercados producidos en fiestas de Gares tras forzarse la intervención de la Policía Foral contra jóvenes que denunciaban la gestión de la alcaldesa desembocará en juicio contra el joven detenido, para el que se reclaman 20 meses de prisión por «atentado» y 45 días de multa por «lesiones».

En apoyo a este joven, la Gazte Asanblada de la localidad ha logrado recopilar ya 600 firmas con el lema «Todos somos Kiko», y plantea continuar con esta labor antes de la celebración del juicio oral.

El escrito de la Fiscalía apunta a que la intervención policial fue provocada por los mandatarios municipales, como denunciaron los vecinos, ya que detalla que el despliegue se produjo «dadas las amenazas que la alcaldesa de dicha localidad había recibido y ante el temor de que pudiera producirse algún incidente».

El fiscal asegura que el detenido trató de propinar una patada a la alcaldesa, sin lograrlo, pero que sí impactó en un agente de la Policía Foral. Y añade que se arrojó «una ristra de petardos» a otro uniformado.



Herritarrek bakea eraikitzen parte hartzeko ekimena

Iniciativa para la participación ciudadana en la construcción de la paz

Hontsulta ezazu eta parte hartu Interneten bitartez. Consulta y participa a través de Internet.

www.konpondu.net

Eman zure iritzia telefono-zenbaki honen bidez: Deja tus aportaciones a través del teléfono:

902 540 499